

Urte hasieran bildu giñen lehen aldiz udalarekin gure lan egoeraren berri emateko. Udalak pliego berrien bitartez, zerbitzua lehiaketara atera behar zuen lorezaintza zerbitzua esleitzeko.

Ordurako prezero enpresak prorroga luzapenari uko egin zion, eta udaleko enpresa komitearen bitartekari lanari esker lehen hitzordua lortu genuen.

Guk gipuzkoako kale garbitzaileen hitzarmeneko lan baldintzetara egokitzea eskatu genuen hasieran, udal berdinerako lan egiten dugun langileak garelako eta baita enpresa berekoak ere, eta ez daukagula zertan gutxiago irabazi.

Honek ezezko erantzuna jaso zuen udalaren aldetik, itxuraz larregiko esfortzua eskatzen zizuen zerbitsu sailekooi zuen. Eta Anuskak Errastik, azken udal plenoan eskatzen zuen kalitatezko lan baldintzen gaintetik egongo zen eskakizuna. Besteei eskatzen duzuen ondoren zuek ez duzue berdin betetzen.

Modu berdinean ukatu ziguten Gureak Berdeakeko konbenioaren pareko eskakizuna eskatu genuenean ere. Harrituta eta igel aurpegia orduko erantzuna ere.

Esfortzu handiegia kontuixu !!!!!

Ondoren zuen proposamena iritsi zen. Langileon arteko soldata arrakala kentzera bakarrrik mugatzen zena. Honek enpresakin adostuta zegoela sinistarazi dezake. Enpresakin biltzeko arazorik ez baitdu erakutsi udalak.

Proposamen honek langile guztiengan eragiñik ez duelako eta beste kontratu berriak duen iraupen guztian, soldata finkatuta gelditzeko kondenatuak geundenez. Ordurako enpresarekin biltzen hasi giñen plusez gain, beste aldarrikapen eta eskubide lortzeko. Ekiparazio plusek ez bait zuten gure egoera kaxkarra konpontzen. Enpresak hasieratik esan zigun KPIa ez zutela ordainduko. Beraz, langileok planto egin beharra ikusi genuen. Nahiz eta ezer gabe geratuko giñenaren mehatxuak erabili ziren guk atzera egiteko.

Uztailaren 18an greba hasi genuen, soldata arrakalaz aparte .. KPIaren igoera behintzat lortzeko.

Gure aldarrikapenak ez ziren beste munduko ezer, zerbitzu publiko bat eskeintzen dugun azpikontrataturako langileen lan baldintzak duintzea eskatzen genuen eta hori da udal hau ordezkatzeko duzun indar politiko denei adierazi genizuen. Gobernuburua osatzen duzuenok, zerbitzu buruko PSOEko zinegotziak esandakoarekin gelditu giñen. Ordurako esfortzu handia egiña zegoela eta ez zenutela besterik egingo

Eta PNVren kasuan, guk eskatzen genuen baldintza bat udaleko zerbitzu juridikoekin begiratu behar zutela eta erantzungo zenigutela. Bitartean denbora aurrera eta greba luzatzen ari zen.

Berriz ere hasierako jarrera berdiña ez ikusiarena... Eta hórrela pasa da uda osoa... Eta irailean ere kasorik ez.. Guk jo behar izan dugu bai bateko eta besteko ateak.

70 egun egin ditugu greban eta zoritxarrez konturatu gara, lortu dugun guztia astebetean lortu zitekeela. Baina irailaren 23rarte ez zen gatazka konpondu. Gure ustetan, pelota teilatu batetik bestera bota duzue udala eta enpresak eta iñork ez zuen bere gain hartu nahi gure egoeraren erantzunkizuna.

Akordio hau, 4 urte barru amaituko da eta orduan ere borrokan jarraituko dugu gure egoera hobetu dadin. Zerbitzu publikoak langile publikoen bitartez eman behar direla defendatzen dogu, horrek zerbitzua kalitatezkoa izatea eta langileen lan baldintza egokiak bermatzen dituelako. Pribatizazio eta azpikontratazioaren kontra agertuko gara, baita horren kontrako erabakien aurrean borroka martxan jarri, erakutsi dugu ez gaudela prest edozer gauza onartzeko eta gure eskubideak lantokietan ezik, kalean ere defendatuko ditugula. **BORROKAK MEREZI DUELAKO!**

LAN BALDINTZA DUINAK ARRASATEKO LOREZAINENTZAT!